



AURRERA LEHENENGO ALDIZ 3.MAILARA IGO ZEN 50 URTEURRENA



Orain dela 50 urte Aurrera lehen aldiz 3.mailara igo zela eta, zuzendaritza batzordeak igoera hartako protagonistak omentzea erabaki du. Abuztuaren 10ean, larunbatean, arratsaldeko 18:30etan jokatuko da AURRERA-ALAVES partidua, igoera lortu zen final hura gogorarazteko.

HISTORIA

HISTORIA

HISTORIA

HISTORIA

HISTORIA

HISTORIA

HISTORIA

HISTORIA

Duela 50 urte Aurrera lehen aldiz 3.mailara igo zen Deportivo Alaves taldeari Atotxan irabazitako final baten ondorioz. Asko kostatako igoera izan zen, finalak hiru partidu behar izan baitzituen dema erabakitzeko. Lehen partiduan, 1-1 berdindu zuten Atotxan, beraz bigarren partidu bat jokatu beharra izan zuten. Baina, bigarren hau ere 3-3 berdinketarekin bukatu zen. Azkenean, maiatzaren 26ko partidua izan zen hirugarrena eta azkena. Aurrerak 1-0 irabazi zuen Juan Arostegi "Kubala"-ren gol batekin (oraindik jubenila zen, nahiz eta finala nagusien taldearekin jokatu). Horrela, Aurrerak kopa eta igoera eskuratu zituen lehen aldiz sortu zenetik.

GARAIKO JOKALARIAK IPARRAGIRRE ENTRENATZAILEAREKIN



ROKE AGIRRETXEA TALDE HARTAKO KAPITAINA IKUSTEN DA (4 ZENBAKIA LEPOAN)
KOPA ATOTXARA HURBILDU ZIREN ONDARRUTARREI ESKEINTZEN TALDEKIDEEN LEPORA IGOTA.

Ehunka herritar joan ziren 63ko maiatzaren 26an Atotxako zelaira gure mutilak animatzera, eta festa herrira ere zabaldu zen protagonistak Ondarroara heldu zirenean.



1962-63 DENBORALDIA

LEHENDAKARIA	ENTRENATZAILEA
PEDRO MARIA ETXANO	JOSE MARI IPARRAGIRRE

JOKALARIAK

I.ZENARRUZABEITIA "TXILLER"	D. ZENARRUZABEITIA	JOSE M ^a SAN JUAN
JOSE MARIA BADIOLA	LUCIANO ETXEBARRIA	JUAN BADIOLA
FERNANDO BADIOLA	IGNACIO ZELAIA	DOMINGO EIZAGIRRE
AGUSTIN BADIOLA	ANGEL VELOSO	JESUS BEITIA
ROKE AGIRRETXEA	GERARDO GARRAMIOLA	JESUS MARI LARRAÑAGA
JAVIER ARANTZAMENDI	JOSE SILVEIRA	GREGORIO BERNEDO
PACO SOLABARRIETA	JOSE MARIA BERRIDI	JON SOLABARRIETA
PEDRO ARAMAIO	L.F. MARKUERKIAGA	JUAN AROSTEGI
JUAN ALDARONDO	JUAN JOSE FERNANDEZ	JOSE M ^a GABIKA



ZORIONAK GUZTIOI!!



1963/05/26

*Atotxa futbol zelaian Aurrerak lehen aldiz
3. mailara igotzea lortu zuen egunaren*

50. urteurrena



**AURRERA
K.E.**

ALAVES



Abuztuaren 10ean, 18:30etan

**AURRERA BETI
AURRERA!!!**



ANIMATU ETA HURBILDU ZAITEZ ZALDUPERA!!

